

GASTEIZKO HIZTUN BATEN AHOSKERA AZTERKETA: ERREGISTRO FORMALA ETA INFORMALA

Gradu Amaierako Lana

Maialen Kortabarria Zabala

Euskal Ikasketak gradua

2019-20 ikasturtea

Tutorea: Oroitz Jauregi Nazabal

HIZKUNTZALARITZA ETA EUSKAL IKASKETAK SAILA

Laburpena

Hurrengo lerroetan Gasteizko hiztun batek egoera formalean eta informalean erabiltzen duen ahoskera aztertu dugu, horretarako EBAZ arauak helduleku gisa hartuz. Hiztunak herri irrati batean ekoizitako podcasta eta hiztunaren lagun arteko elkarrizketa grabatu bat baliatu ditugu horretarako. Lanaren lehenengo atala teorikoagoa da, eta bigarrena, aldiz, praktikoagoa, datu enpirikoetan oinarritutakoa.

Lehenik eta behin, formaltasun maila ezberdinetako eremuak kokatu ditugu. Hizketa mailak egoera jakin batzuetan kokatu ditugu, bakoitzaren ezaugarriak orriotara ekarriz. Horretarako, herri irratigintzaren inguruko azalpena eman dugu erregistro formaleko hizketa estiloa kokatzeko. Nahiz eta herri irratigintzako hizkera irrati profesionaletakoa baino “askeago” eta “informalagoa” den, ondoren alderatu dugun eremutik aldentzen da, entzulego jakin bati mezu argia helaraztea baita helburu nagusietako bat. Ondoren, lagun arteko hizketaldiaren inguruko atala landu dugu, erregistro informalagoaren eremu gisa. Bi hizketa estiloen arteko mugak lausoak izan daitezkeen arren, ezin uka daiteke bata bestea baino eremu formalagoa denik.

Hizketa estiloen sailkapen eta ezaugarrien atala azaldu dugu gero. Llisterri, Donegan, Stampe edo Oñederrak egindako lanetan azaldutakoak ezagutzea beharrezkoa da formaltasun mailetan aurki ditzakegun bilakabide fonologikoak aztertzeke.

Atal praktikoagoa ondoren aurkeztu dugun lanaren corpusarekin hasi dugu. Aztergai izan dugun hiztuna (subjektua) eta bere ezaugarriak, eta hiztun honen hizketaldiak jasotzen dituzten audioak aurkeztu ditugu bigarren atala hasteko.

Corpusaren azterketarekin sartu gara datu enpirikoen azterketa betean. Lan honetako subjektuaren audioen transkribapen fonetikoak egin dugu ondoren. Aipatzekoa da Gasteizen kokatzen dela azterketa, eta euskara batudun hiztun euskaldun baten ahoskeran gertatzen diren bilakabideak azaleratzeko helburua duela. Gasteizen, egun euskalkirik ez duen eremu batean, euskara batua da eremu formal zein informalagoetan hiztunek darabiltena. Beraz, oinarri honetatik abiatzen da azterketa. Corpora osatzeko erabilitako transkribapenetan aurkitu ditugun bilakabideak zerrendatu ditugu eta EBAZ arauekin lotu ditugu atal praktikoarekin amaitzeko. Eta azkenik, azterketan ateratarako ondorio nagusiak aurkeztu ditugu. Bi hizkeren artean bilakabide fonologikoei

dagokienean alde handirik aurkitu ez badugu ere, bilakabideen deskribapena egiteak ondorengo azterketa batzuetarako informazio interesgarria eman dezake.

0. AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	5
2. Formaltasun mailak ahozkoan... ..	6
<i>2.1. Herri irratigintza.....</i>	<i>7</i>
<i>2.2. Lagun arteko elkarrizketak.....</i>	<i>9</i>
3. Hizketa estiloak.....	10
<i>3.1. Sailkapena.....</i>	<i>10</i>
<i>3.2. Ezaugarriak.....</i>	<i>12</i>
<i>3.3. Hizketa estiloez harago.....</i>	<i>13</i>
4. EBAZ arauak	14
5. Bilakabideak	15
<i>5.1. Fortitioak</i>	<i>15</i>
<i>5.2. Lenitioak</i>	<i>16</i>
6. Corpusaren azterketa eta analisisa.....	16
<i>6.1. Subjetua.....</i>	<i>17</i>
<i>6.2. Datuen aurkezpena eta analisisa</i>	<i>17</i>
<i>6.3. Ondorioak</i>	<i>27</i>
8. Ondorio nagusiak.....	28
9. Erreferentzia bibliografikoak..... ..	30
10. Eranskinak..... ..	32

1. SARRERA

Hiztunok ez dugu berdin ahoskatzen eremu edo inguru guztietan. Zenbaitetan, erregistro aldaketa izaten da inguruak baldintzatuta. Eremu formalago edo informagoetan darabilgun hizketa estiloetan ezberdintasunak aurki daitezke oro har. Horixe izango dugu aztergaia ondoko lanean, formaltasun maila ezberdinetan hiztun batek darabilen ahoskera.

Irratigintza ahozketasunaren eremua da, ahotsa baita neurri handi batean ardatza. Entzulego ezezagun bati zuzentzen zaio esataria, informazio jakin bat helarazi nahian. Komunikazio horretan, esatariak, oro har, mezua modu argian zabaldu dadin ahoskera zainduagoa erabili ohi du, eta beraz, erregistro formalagozat jo dezakegu irratiko hizketa estiloa.

Irratigintzatik ezberdintzen den eremu bat lagunartekoa da, besteak beste. Eremu honetako komunikazioak ez du hainbeste bilatzen informazio jakin bat modu ahalik eta argienean helaraztea, ez behintzat irratian gertatzen den neurri berean. Ahoskera “naturala” da lagunartekoa, hiztunak bereziki zaintzen ez duena, arduragabea goa.

Ondoko lana hiztun batek bi eremu hauetan darabilen ahoskeraren azterketa izango da. Eremu formalago batean (irratian) eta informago batean (lagun artean) aurki ditzakegun bilakabide fonetiko fonologikoak deskribatuko ditugu, EBAZ arauak betetzen ote diren azalduz.

EBAZ arauak hartuko ditugu formaltasun maila gorenaren eta ahoskera zainduaren oinarri gisa, eta arau hauek erreferentziatzat hartuta aurkituko ditugun aldaerak fonetiko fonologikoki deskribatuko ditugu. Formaltasun maila ezberdinak eskatzen dituzten eremuetan EBAZ arauetako dauden bariazioak deskribatzea izango da helburua, beraz.

Gasteizko herri irratigintzan kokatuko dugu eremu formala. Euskara batua Gasteizko euskal hiztunen berezko euskara dela kontuan harturik, bertan hiztunak egiten dituen aldaerak izango dira aztergaia, inondik inora ez batua eta euskalkien artean dauden desberdintasunak azalratzea. Horretarako, Hala Bedi irratiko irratsaio bateko podcastak erabiliko ditugu eremu formalerako lagin gisa.

Eremu informala, berriz, aipatu bezala lagun arteko elkarrizketan kokatuko dugu. Eremu formalerako erabiliko ditugun Hala Bediko podcastak ekoizten dituen esatari

berdinak lagun artean darabilen elkarriketa bat baliatuko dugu hizkera informalerako lagin bezala.

Ahozko estandarizatorako emandako irizpideak noiz eta nola betetzen diren ezagutzea eta formaltasunerako irizpideak betetzen diren aztertzea izango dira, azken finean, helburua. Ahozko estandarizazioan mugari garrantzitsua izan diren EBAZ arauak izango dira oinarria, eta horiek zenbateraino betetzen diren (eta noiz) izango da deskribatuko duguna, esan bezala, bi eremu nagusitan, formalean eta informalean.

2. FORMALTASUN MAILAK AHOZKOAN

Euskararen ikerkuntzan, ahozkoatasuna izan da azken urteetan hainbat hizkuntzalarik aztergai izan duten eremua. Idatzizko hizkuntza duela zenbait urte arautu bada ere, eta euskara idatziaren erabiltzaileek arauok barneratu badituzte ere, ahozkoak beste erritmo bat daramala ezin dezakegu ukatu. 1968an aurkeztutako euskara batua onartua eta barneratua izan dela esan daiteke, hau baita egun euskara ezberdinetan idazten dugunok komunean dugun euskara. Batuak izan duen eragina ukazina da, hizkuntza komuna ezinbestekoa baita hizkuntzaren normalkuntzarako. Euskararen diglosi egoera kontuan hartuz, hizkuntza idatziaren estandarizazioak ekarritako onurak begi bistakoak dira. Ahozkoan, berriz, zailagoa izan daiteke arau estandarizatuak eman eta euskal hiztunek onartzea ahozkoak berak dituen ezaugarriengatik, ahozko estandarerako bidean eman diren pausuak garrantzitsuak izan badira ere. Ahozko hizkera idatzia baino aldakorragoa da neurri batean, hiztun bakoitzaren menpe baitago ahoskatzeko modua, eta idazkeran baino faktore anitzagoek izan dezaketelako eragina. Bigarren honetan, ahozkoan, sakontzen saiatuko gara ondoren aurkeztuko den lanean.

Euskarak izan duen historiagatik, gainera, esan daiteke, beste hizkuntza batzuekin konparatuz, berandu arte ahozko euskara etxeko hizkuntza izan dela. Azken mendera begiratuta bestelako eremuetan oso gutxi erabilia izan da ahozkoa, eta apenas landua. Erregistro aldetik, beraz, ez du garapen handirik izan.

Egoera hau horrela izanik ere, euskalkia mantendu den eremuetan, euskalki eta estandarra duten hiztunek, oro har, eredu estandarra eskolan ikasi dute, eta erabilera eremu formelatera mugatzen dute gehienbat. Gasteizen, ordea, euskara batua da

orokorrean eremu guztietan darabilguna, izan lagun artean edo familian¹, izan eremu akademiko zein instituzionalean edo hezkuntzan. Hala ere, pentsa daiteke badela ezberdintasunik batudun gasteizko hiztunek eremu batean zein bestean duten hizkeran².

Asko dira eztabaidagai izan daitezkeen kontzeptuak eremu honetan. Zeintzuk osatzen dute euskara batuan hitz egiten duten gasteiztarren taldea? Gasteizen jaiok? Euskal Herriko beste eremu batetik etorritako euskaldunak eta Gasteizen bizi direnak? Beste euskalki batzuen eragina duten hiztunak? Edonola ere, helburua ez da Gasteizko hizkera ez eta Gasteizko euskal hiztunen taldea definitzea. Azterketa honetan euskara batudun gasteiztar euskaldun baten hizketa estiloak izango dira laginerako oinarri; horretarako, hiztun berberak formaltasun maila ezberdinetako eremuetan darabilen ahoskera aztertuko dugu. Aurrerago deskribatuko ditugu honako lanean aztertuko dugun subjektuaren ezaugarriak.

2.1. Herri irratigintza

Gasteizko herri irratigintza denez azterketako eremu bat, berau zehaztu eta definitzen saiatuko gara, lehenik. Eremu interesgarria iruditzen zait ahozko arauok noiz/non betetzen diren deskribatzeko, ahozkoa baita irratigintzaren ardatz nagusia. Egunorokoan eremu honetan murgilduta egonik, ahoskeran sumatzen nituen aldaerek (edo erregistroaren arabera ahoskatzeko modu ezberdinek) interesa pizturik hemen aurkeztuko dudan lanerako eremu aproposa izan zitekeela pentsatu nuen. Podcastak eskuratzeko erraztasunak ere bultzatu nau honetara. Datu bilketa konfinamendu garaian egin da, eta beraz, egoera honetan, datuak biltzeko modu bakarrenetakoa izan da.

Ez da erraza herri irratigintzaren definizioa ematea, izan ere, Euskal Herrian asko dira duela urte askotik martxan dauden herri irratiak, eta ondorioz, haien praktikak urtez urte garatzen, moldatzen eta bilakatzen joan dira. Ez dugu hauen historian sakonduko, herri irratigintzan erabiltzen diren hizkerak fonetika eta fonologia eremutik aztertzea izango

¹ Familiako hizkuntza eredua kontuan hartu beharrekoa da, izan daiteke gurasoak euskara batuaren jabe izatea, izan daiteke ere euskalkidunak izatea, edo izan daiteke euskararik ez jakitea.

² Lanean zehar kontuan izango dugu euskara batudun gasteiztar euskaldunek ez dutela talde homogenea osatzen, talde honen baitan kokatzen diren hiztunek ezaugarri ezberdinak izan ditzaketelako (euskara etxean ala eskolan jasoa, familia euskalkiduna edo erdalduna, euskara nagusitan ikasitakoa...). Hala ere, ez dugu ezaugarri ezberdin hauen arteko azpitalderik egingo. Ondoren azalduko dugu zein ezaugarri dituen lagineko subjektuak.

baita lan honen helburua. Horretarako, eta lehen pausu bezala, aztergai izango dugun eremua definitzeari ekingo diogu.

Herri irratigintzaren ezaugarri edo oinarriak zerrendatzeko Arantza Gutierrezen *Euskal Irratigintzaren historia* (2002) lanean jasotako Hala Bediren ordezkari baten adierazpenak baliatuko ditugu. Ondorengoak dira herri irratigintzari aitortzen dizkion ezaugarriak:

-Herri Mugimendu izaera

-Lantzen diren gaiak komunikabide ofizialek esaten dutenaren modu ezberdinez kontatzea

-Estatuak bere irratietan³ ematen duen ikuspegiari bira ematea

-Gizartea, sistema eta estatua aldatzea da helburua

Baieztape hauetan nabarmentzekoa da herri irratiek ez dutela komunikabide ofizialek darabilten editorialik jarraitzen. Herri zein kultur mugimenduetako norbanakoek definitzen dute irratia egiteko modua zein landuko diren gaiak. Honekin batera, irratia egiteko moduz gabiltzanean, erabiltzen den hizkera ere aipa dezakegu, izan ere, “aske” izaerak barnebildu dezake lokuzioan dabiltzan pertsonak erabakitzen dutela hizkera bera, aurrez zehaztutako irizpiderik gabe (salbuespenak salbuespen, azken urteetan hainbat irratia libretan estilo liburuak zehazteko lanketak egiten ari baitira). Herri irratigintzako ahoskera, beraz, hiztunaren ahoskera “naturalera” gehiago hurbil daitekeela esan daiteke, kontzienteki ahoskera zaindua erabiltzeko eskaera argirik ez dagoelako. Hala Bedi irratia ere ezaugarri hauen baitan kokatzen da, eta beraz, gure laginek hiztunak ez ditu beteko irratia ofizialetako hainbat ezaugarri, esatari profesionalak eska dakiekena baino askatasun gehiago izan dezakeelako.

Hain zuzen ere, profesionalizazioa da herri irratigintzari buruz dihardugunean eztabaida sortu dezakeen alderdi esanguratsu bat. Izan ere, “hizkera profesional” eta “ez profesional”ari buruz ari garenean muga lausoa dago “hizkera profesionala” eta “hizkera profesionalizatua”ren artean. Kazetarien hizkera “profesionala” dela

³ Hala Bediko ordezkariak eman bezala ekarri ditugu orriotara ezaugarriak. “Estatutaren irratia” aipatzean, pentsa dezakegu irratia ofizialez ari dela.

baieztatzen da hainbat ikerlariren iritziz (Delgado & Freitas, 1991), baina kazetari edota esatari profilak ezberdinak izan daitezke herri irratigintzan, izan ere, eremu honetan formakuntzadun zein formakuntza gabeko esatariak dihardute lanean. Eremu akademikotik kanpo geratzen diren egunerokotasuneko praktikak dira, hain zuzen ere, herri irratigintzan eta irratigintza komunitarioan aurki ditzakegunak. Ondoriozta dezakegu, beraz, irrati profesionalen egiteko modutik aldentzen den irratigintza dela, jakintza edo ikasketa jakin batzuk eskatzen ez diren alor batez ari garela. Honek “hizkera profesional” eta “ez profesionala”ren muga lausotzen du, orokorrean, profesionaltasunaz aritzen garenean formakuntza akademikoa izaten delako irizpide nagusietako bat. Nola ezberdindu eta sailkatu, beraz, herri irratigintzako hizkeren profesionaltasuna? Lan honetan ondorio argirik ez dugu aterako gai honen inguruan, agian, baina azterketan kontuan hartuko den alderdia da hizkeren sailkapena egitean, aurrerago ikusiko dugunez.

Herri irratietan, mota askotako saioak ekoizten dira, izan musikari buruzkoak, literaturazkoak, aktualitatea lantzen dutenak, umorezkoak, feminismoan sakontzen dutenak edota internazionalismoari buruzkoak, esaterako. Gaiaren konnotazio sozialak (jendartearen iritziz garrantzi eta pisu handiagokoa ala gutxiagokoa izatea) hizkeran izan dezakeen (formaltasunean) eragina kontuan izatekoa da, eta baita honek esatariaren hizkera baldintzatu dezakeela ere. Aktualitateko gaiak lantzen dituen magazineko esatariak, adibidez, erregistro formalagoa erabiliko duela aurreikusi dezakegu, hartzaileak informazio argia jaso nahi baitu. Umorezko saio bat edota gai arinago bat (musika, kasu) lantzen duen esatariak, aldiz, erregistro arinagoa erabiliko du. Aipaturiko gai bakoitzak, gainera, hartzaile ezberdinak ditu; irratsaio motak, beraz, baldintzatu lezake esatariaren erregistroa. Izan ere, aktualitateko magazinek entzuleek, esaterako, hizkera “formalagoa” entzutea espero dezakete, eta esataria ere horretaz jakitun izango da, eta ahoskera zainduko ezaugarriak modu kontzientean betetzen saiatuko da, ziurrenik. Honez gain, azken urteetan entzulegoaren zabalpena eman da podcast eta online baliabideen ondorioz, eta herri irratietako ekoizpenak Euskal Herri osoan zein kanpoan ere entzun daitezke. Irrati esataria kontziente da entzulegoa zabaldu dela, eta ahoskera zainduago eta ulerterrazagoa egitera eraman dezake.

2.2. Lagun arteko elkarrizketak

Gasteizko herri irratigintzan euskara batua darabilte esatariek, baina ez soilik irratigintza bezalako eremu formaletan. Aipatu bezala, lagun artean ere batuan mintzatzen dira, oro har, eredu hori jaso baitute eskolan eta hori izan da iturri nagusia. Formaltasun mailetan arreta jarritz, aipatzekoa da Gasteizko hiztunek ez dutela euskalkidunek bezainbesteko hizkera aldaketarik eremu informaletan⁴. Euskalkidun hiztunek euskalki propioko hainbat ezaugarri txertatzen dituzte hizketa estilo informaletan, eta batura hurbil daitezke formaletan, aukera hori badute. Gasteizen, ordea, pentsa genezake agian ez dagoela hainbesteko desberdintasunik bi hizkera moldeetan, ez behintzat euskalkidun hiztunen neurri berean.

3. HIZKETA ESTILOAK

Hizketa estilo formal eta informaletako ahoskerak aztertuko ditugunez, hainbat ikerketa fonetiko fonologikotan eraibiltako oinarriak ekarriko ditugu orriotara, hizketa estiloen sailkapenak eta ezaugarriak ezagutzeko.

3.1. Sailkapena

Corpusaren sailkapenari dagokionean, proposamen ezberdinak aurki ditzakegu. Hizketa estiloak sailkatzeko irizpide ezberdinak badaude ere, hemen Llisterriren (1992) proposamena hartuko da oinarritzat. *Speaking styles in speech research* (1992) lanean adierazten duen bezala, datuak biltzeko prozedurak adosteko beharra dago. Aipatutako lanean azaltzen duenez, gehien errepikatzen diren hizketa estiloak *continuous* edo jarraitua, *spontaneous* edo bapatekoa, *connected* eta *read* edo irakurria dira. Hauetaz gain, *professional speech* edo hizkera profesionala (Delgado & Freitas, 1991) izendapena ere agertzen dela aipatzen du Llisterrik.

Llisterrik (1992) bere lanean hizketa estiloen sailkapen bat biltzen du, eta 1. taulan ikus dezakegun bezala, hainbat autorek egoera ezberdinak hizketa estilo berdinetan kokatzen dituzte, eta baita material berberak hizketa estilo ezberdinetan:

⁴ Hiztunak duen ingurua edo hizkuntza garapena kontuan hartu beharko litzateke. Eskolan ikasi ondoren euskalkiren bat barneratu dezakete, adibidez, edo euskalkidun lagunak izan edo eta haiengandik ikasi, edo familiako kide euskalkidun batengandik ikasi. Kasuak asko izan daitezke.

Interview with native speaker Prose passage read aloud	Continuous speech Continuous speech
Interview with native speaker Free conversation with friend Directed / guided interview Interview with professional speaker Man-machine dialogue Media political debate Radio listener's conversation Radio sports comments	Spontaneous speech Spontaneous speech Spontaneous speech Spontaneous speech Spontaneous speech Spontaneous speech Spontaneous speech Spontaneous speech
Journalists reading news Teachers in classroom	Professional speech Professional speech

Sentences read aloud Words in sentences read aloud Paragraphs and text read aloud Native speaker's intuition	Connected speech Connected speech Connected speech Connected speech
Text read aloud Sentences and text read aloud	Prose reading Read speech

Prose and poetry reading News reading	Scripted speech
Conversation Anecdote and joke telling Telephone call Interview Biographical account Lecturing Political speeches Stage performance	Unscripted speech

1.taula: Hizketa estiloak (Listerri, 1992)

Aurkeztutako hauek baino sailkapen gehiago direla jakitun izanik ere, gure lagina bi hizketa estilotan kokatuko dugu. Batetik, testu irakurria izango dugu, eta bestetik, *spontaneous speech* edo bapateko hizkeran kokatuko dugu lagun arteko elkarrizketa. Egia da irakurritako testua irratian ekoiztua dela, eta Delgado eta Freitasek (1991) kazetaritza eta irakaskuntzako hizkeretarako proposatutako “hizkera profesionalera” hurbiltzen dela, oharrenaren eta ondo artikulatzearen helburua baduelako esatariak. Baina aurrez aipaturiko herri irratigintzaren ezaugarriak direla eta (irradi profesionaletako hizkeratik ezberdintzen dena), ondoko laneko corpusa “hizkera profesionaletik” aldentzen dela ondoriozta dezakegu, nahiz eta eremu formalean kokatu, lagun artekoa baino formalagoa baita.

3.2. Ezaugarriak

Autore desberdinek hizketa estilo ezberdinetan gertatzen diren bilakabide ezberdinak eta hizketaldien izendapenak bildu ditu Llisterrik (1992) bere lanean, eta hizketa estiloetan aurki ditzakegun ezaugarriak orriotara ekarriko ditugu, gure corpusean gerta daitekeenaren berri ere eman dezaketelako.

Gure corpora *spontaneous speech* edo bapateko hizkeran kokatu dugunez, hizkuntza ezberdinetan hizketa estilo honetan (eta beste batzuetan) gertatu ohi diren bilakabide fonologikoak aurkeztuko ditugu 2. taulan, Llisterrik bildu bezala:

PHONOLOGICAL PROCESSES	
<i>ASSIMILATION</i>	
Magnitude of the palatal gesture diminishes with increasing speaking rate (in connected speech) Distribution of palatalised and non palatalised consonants is stable under different speaking rates (in connected speech)	Barry Russian
Change of laryngeal quality on the fused vowel or diphthong (in very fast vs. normal connected speech)	Greisbach German
<i>DELETION OR ELISION</i>	
Lack of elision in read speech (vs. spontaneous speech)	Lacheret-Dujour French
PHONEME OR ALLOPHONES	
Preservation of E caduc is higher in reading style (vs. interview and free conversation) Influence of speaking style (read vs. spontaneous) in the presence of pre-pausal e	Hansen French
SYLLABLES	
Stressed syllable deletion in function words associated to maintenance of pitch glides (in connected speech vs. citation forms)	Ball Welsh
<i>STRESS</i>	
Stressed syllables are emphasized at slow and distinct reading modes (vs. normal read speech) Larger differences in stressed syllables than in unstressed syllables in distinct reading mode (vs. normal mode)	Fant <i>et al.</i> Swedish

2.taula: Bilakabide fonologikoak (Llisterri, 1992)

Gure corpusean hauek denak aztertuko ez ditugun arren, interesgarria da hona ekartzea. Izan ere, ikus daiteke, esaterako, irakurrian elisio falta egon dela bapatekoarekin alderatuz. Ezaugarri hauen azterketa akustiko eta artikulatorioa ere beharko liratzeko, baina lan honetan ez dugu horretan sakonduko.

3.3. Hizketa estiloez harago

Hizketaren formaltasun edo informaltasun mailen arabera azterketan, gainera, Gregory & Carroll-en (1978) sailkapena kontuan hartzekoa da. Eremua (zientzia, teknologia...), modua (bakarrizketa, elkarrizketa...), tenorea (formala, informala, irakaskuntzako...) eta erregistroa⁵ (pertsonala, elkarrizketa...) dira aipatutako lanean oinarri harturiko elementu nagusiak. Herri irratigintzan interesgarriak dira elementu hauek, “hizkera profesionaletik” harago baitoaz. Berdin egingo al luke esatari batek irratia profesional edo libre batean? Honelako galderak, baina, beste baterako utziko ditugu.

Hizkeran eragina izan dezaketen faktoreak lantzerakoan, euskara batuak izan ditzakeen aurreiritziak ere aipatu behar dira. Duela zenbait urte sortutako batua vs euskalkiak eztabaidak utzitako ondorioak kontuan hartu behar dira hiztunek euskara bat edo beste batekiko izan dezaketen ikuspegi edo aurreiritzietan (Camino, 2015). Izan ere, batua eremu formaletarako euskara bezala aurkeztu izan zaigu, euskalkien berezko hizkerak eremu informalagoetarako utziz. Gasteizen, ordea, euskara batua izanik euskaldunen berezko euskara, aurreiritzi horiek beste forma bat hartuko lukete ahoskeran: “Segurtasunez ahoskatzen eta hitz egiten ez duen laguna ez da bere buruaz ziur sentitzen eta entzuten duen hura xuxen deskodetzen ez duen hiztuna ere ez da ongi sentitzen.” Gauzak horrela, hizkuntzarekiko (edo bere hizkeretikiko) perspektibak kontzienteki ahoskera aldatzera eraman dezake hiztuna, besteen begietan onartuagoak diren moldeak erabiltzera, hain zuzen ere: “Arlo soziolinguistikoa ere ukitzen du mintzoak, balio sinbolikoa duen aldetik: artean gertatu ez bezala, estandarizazioaren ondoko aldia ahoskera jakin batek prestigio berria har dezake ala prejuizioa eragin diezaike beste entzule batzuei” (Camino, 2015).

⁵ Ideia ezberdinak adierazteko terminologia bera erabiltzen dute hainbat autorek, eta alderantziz. “Erregistro” hitza Gregory & Carrolek (1978) darabilten esanahiarekin darabilgu kasu honetan.

Hizkuntza idatzi eta ahozkoaren arteko aurreritziak ere pisua hartzen dute. Izan ere, bada iritzi orokortu bat, “idatzi dugun moduan hitz egin behar dugula, ongi hitz egiteko” (Moreno Cabrera, 2010). Hizkuntza idatzia “egokitasunaren” erakusgarri da askorentzat. Honek pentsatzera eraman gaitzake aurrez prestatutako testuaren irakurketa ahoskera zuzen edo zainduarekin lotuko duela hitzunik, eta EBAZ arauak betetzeko aukera gehiago dituela, eta bapatekoak, berriz, hitzunen hizkera “naturala” erakutsi dezakeela.

Asko dira, ikus dezakegun bezala, aztergai dugun gaia zeharkatzen duten faktoreak, eta horiek kontuan harturik garatuko da datorren azterketa.

4. EBAZ arauak

Euskaltzaindiak 1998an proposatutako Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ) arauak erabiliko ditugu helduleku gisa gure corpuseko aldaerak deskribatzeko. Hau da, arauok eremu formaletan erabili beharreko hizkeraren oinarri gisa hartuko ditugu, ahoskera estandarren irizpide gisa.

Hizkuntzaren estandarizazioa idatzizkorako funtzionala izateaz gain, ahozkorako ere horrela uler dezakegu, “estandarren erabilera ez baita idatzia bakarrik: oso maiz aldaera estandar hori ahoskatu egin behar da. Testuinguru horretan kokatu behar dira EBAZ arauak” (Oñederra, M. L. et al. 2015, 505).

Euskaltzaindiak EBAZ arauak aurkeztearekin batera, hauek ulertzeko argibide batzuk ere eman zituen argitara. Ahoskeraren aniztasuna eta arauen malgutasuna dira arauok egoki aplikatzeko kontuan izan beharreko ezaugarriak. Izan ere, euskara idatzirako irizpideak ematea baino korapilatsua da ahoskera mugatzea, “ahoskera-kontuetan ohiturak aldatzea zein zaila den kontuan izanik, arau hauek denbora gehiago eskatuko baitute idatzirako ematen direnek baino”. Idatzi bezala ahoskatzetik harago ulertu beharko litzateke, beraz, ahoskera.

Bestalde, euskarak duen hizkera aniztasuna kontuan izanda, irizpide hauen malgutasuna da hauen erabilpenerako gako nagusietako bat, helburua ahoskeran batasuna bilatzea izanik ere, neurri batean euskalkien ahoskera ezberdinak onartzen baitira. Eremuka

hizkerak aldatzen dira, baina baita hiztun bakoitzarengan ere. Aniztasun honen baitan proposatzen ditu Euskaltzaindiak maila jaso eta zaindurako irizpideok.

Arauok izango dira lan honetan oinarri izango ditugun irizpideak eta hauen arabera aztertuko ditugu gure lagineko hiztunen ahoskerak, formaltasun maila ezberdinetan ahoskerak izan ditzakeen bariazioak identifikatzeko eta deskribatzeko helburuarekin, arauok baitira ahozko euskara jaso eta zainduaren gidalerro. Lehenengo eranskinean emango ditugu arauak osorik.

5. BILAKABIDEAK

Hizketa estiloetan aurki ditzakegun bilakabideak aipatuko ditugu, fonetiko fonologikoki deskribatuko baititugu ahoskeran aurkitutako aldaerak. Izan ere, bilakabide fonologikoak baldintzatzen dituen faktoreetako bat hizketa estiloa da, beste hainbaten artean⁶ (Donegan & Nathan, 2015). Oñederrak (2004) azaldu bezala, bilakabide edo prozesu fonologikoa hots edo hots andana baten lekuan beste hots edo hots andana bat ipintzen duen ordezkatea da. Bilakabideak gaindi daitezke, arrazoi fisikoak badituzte ere, ekoizpenaren edo oharmenaren alorreko ordezkate mentalak dira Oñederrak azaldu bezala, eta “maila paradigmaticoan (hiztunak memorian dituen hotsak egituratzean) eta maila sintagmatikoan (pentsaturiko esaldiak hots katea fisikoak bihurtzen direnean) gertatu daitezke”; maila sintagmatikoan ekoizpen-erraztasunak du indarra (lenitioak gertatu ohi dira, oro har), eta paradigmaticoan, berriz, oharmen-erraztasunak (fortitioak gertatu ohi dira).

Bilakabideak hizkuntzaren jabekuntzaren hasieran agertzen dira haurrengan Jakobson (1968), Donegan (1985) eta beste hainbat autorek azaldu bezala. Ahoskeran prozesu naturalak dira, hizkuntzen arabera ezberdinak diren arren⁷.

5.1. Fortitioak

⁶ Donegan eta Nathanek (2015) azaldu bezala, erredundantzia, hitzen maiztasuna, estiloa eta beste hainbat faktoreekin lotuta daude bilakabideak.

⁷ Hizkuntza bakoitzaren ezaugarrien arabera, bilakabide jakin batzuk nagusitzen dira (Donegan, 1995). Bilakabideak fonetikoki motibatuak dira, unibertsalak, baina ez dira inoiz guztiak hizkuntza bakar batean gertatzen (Oñederra, 2004).

Fortitioak enfasi gehiago jarri nahi den formetan gertatzen dira, Donegan eta Nathan-ek (2015) azaldu bezala, exageratu edo gehiago “markatu” nahi diren formetan, hain zuzen ere. Oharmena hobetzera bidean hots unitateetan⁸ edo hots-bilkuretan gertatzen diren indartzeak dira: disimilazioak, diptongatzeak edo eransketak, esaterako.

Hizketa estilo edo hizkera mailaren aldetik, ulertu genezake hiztunak ahoskeran arreta jartzerakoan gehiago aurki ditzakegula, eremu formaleko ahoskera zainduan, hain zuzen ere. Irratigintzan, hiztunak hizkera ardurazkoa darabil oro har, oharmenaren mesedetan. Hainbat elementutan enfasi gehiago jartzera joko du hiztunak entzulegoaren ulermen egokiaren bila. Entzulearen arreta mantentzera ere jo ohi duenez esatariak ahoskeraren bitartez, fortitioak aurkitzeko testuinguru egokia dela pentsa genezake.

5.2. Lenitioak

Lenitio, berriz, hots-bilkura baten ordeztu beste hots-bilkura ahulago bat egiteari deitzen zaio (Oñederra, 2004), ekoizpenerako konbinaketa errazago bat osatzen duten hots aldaerak dira. Hotsen sekuentzien optimizazio gisa definitzen dituzte lenitioak Donegan eta Nathan-ek (2015). Asimilazioak, ordezkatzak edo hots kenketak dira, adibidez, lenitioak.

Hizkera mailetara joz, pentsa genezake egoera “askeagoetan”, hiztuna kontzienteki ahoskera zainduaren bila ez doanean (oharmenak garrantzi berezirik ez duenetan) edo hizketa arduragabeagoetan gertatzen direla lenitioak. Eremu edo egoera informaletan, beraz, ahalegin artikulatzailearen aldetik erraztasunen bila joko du hiztunak.

6. CORPUSAREN AZTERKETA ETA ANALISIA

Bi eremu aukeratu ditugu hiztun berberaren ahoskera erregistro formala eta informala aztertzeko. Horretarako, subjektu berberaren bi egoeratako (eta bi erregistrotako) audioak baliatuko ditugu. Batetik, herri irratigintzan ekoiztutako audioak (formala); lagun arteko elkarrizketa (informala), bestetik. Erregistro formalerako Hala Bedi irratan

⁸ Hots unitateei dagokienean, hizkuntza baten hots inbentarioaren osaketan parte hartzen dute fortitioek (Oñederra 2004).

ekoizten duen podcasta erabiliko dugu, *Poeta Madarikatuak* saioa, hain zuzen ere. Informalerako, berriz, lagun artean izandako elkarrizketa grabatu bat erabiliko dugu.

Onartu behar dugu hiztun batera mugatzen dela azterketa hau, eta honen ahoskeraren deskribapena egitea garrantzitsua deritzogun arren, emaitza mamitsuagoak atera litezke ezaugarri ezberdinak dituzten hainbat hiztunek osatuko balute lagina.

Ondoren aztertuko ditugun datuak bilatzeko eskuragarri izan dudana materiala erabili dut, egungo egoera sozio-sanitarioak hala behartuta. Azterketa fonetiko-fonologiko bat egiteko egokienak lortu ezin izan ditugun arren, irrati podcasta kalitate hobean lortzeko aukera izan dugu. Lagun artekoa, berriz, kalitate baxuagoan lortu dugu, eta hiztunarekin ezin izan dut elkarrizketa presentzialik egin. Aurrez aipatu bezala, eta oraingoan egin ez dugun arren, azterketa akustikoa egitea ere interesgarria litzake lan hau osatze aldera.

6.1 Subjetua

Hala Bedi irratian literaturari buruzko irratsaio bat ekoizten duen Mirenen ahoskera dugu aztergai. Aipatu bezala, erregistro ezberdinak darabiltzan bi egoeratako audioak erabili ditugu. Aipatu beharrekoa da Miren jakinaren gainean egon dela lagun arteko elkarrizketa grabatua⁹ izango zela. Erregistro informala erabiltzeko egoera egokia izan arren, aurrez grabatua izango denaren jakitun izateak baldintzatu dezake ahoskera. Dena den, irratigintzan darabilen erregistro formaletik aldentzen den hizketa estiloa darabil.

Mirenek euskara eskolan jaso du, etxetik hitz bakan batzuk soilik jaso ditu euskaraz. Guraso erdaldunak ditu, baina familian Irun eta Hondarribiko senide euskaldunak ditu, eta horiekin txikitatik euskaraz mintzatzen da. Gasteiztarra da, eta eskolan jasotako ereduak zein bere inguru hurbilean izan duena batua izan da. Euskara batuan hitz egiten du gaur egun ere eremu formaletan zein informaletan. Euskara erabiltzeko ohitura handia du subjektuak, eta egoera ezerdinetan euskara darabil nagusiki.

6.2. Datuen azterketa eta analisisa

⁹ Grabaketak konfinamendu garaian egin behar izan dira, eta horrek baldintzatu egin du lagina nahi bezala osatzea. Hiztun gehiagoren grabaketak jasotzeak askoz osoago egingo luke azterketa.

Lan honetako atal praktikoan murgilduko gara datozen orrietan, datu empirikoak jasoko baititugu. Lagineko audioen transkribapen fonetiko¹⁰ egingo dugu, eta bigarren eranskinean emango ditugu. Ondoren, datuak aurkeztuko ditugu. EBAZ arauetan aurkeztutako modu berean antolatuko ditugu jasotako datuak. Datuok idazkera ortografikoan emango dira, arau bakoitzaren eremuan aztergai dugun hotsa edo hots-bilkura soilik transkribatuz, ulerterrazagoa izan dadin. Arauak betetzen diren eta betetzen ez diren adibideak jaso dira.

Bi eremu banatuko ditugu datuak aurkeztean, formala, gure kasuan irratiko esatari gisa (hemendik aurrera (f)), eta informala, gure kasuan lagun arteko elkarrizketa (hemendik aurrera (if)).

Bokalak

I. <a, e, i, o, u> Idatzi bezala ahoskatu: [a, e, i, o, u]; sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>ren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [y]) hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan.

- (f) *b[a]t[e]r[e]; [i]st[o]r[i][o]; [a]r[i]t[u]k[o]; h[e]r[i][o]tz[a]; [i]z[u]g[a]rr[i][a]z; l[u]b[a]k[i][e]t[a]n...*
- (if) *d[e]nb[o]r[a]ld[i]k[o]; b[e]t[e]t[a], [i]k[u]s[i]k[o], s[a]rt[u]k[o], z[u]r[e]tz[a]t, d[o]k[u]m[e]nt[a]l, l[i]b[u]r[u].*

Hiztunak bost bokalak bere oinarriko forman ahoskatu ditu. Hiztuna hegoaldekoa izanik, espero bezala, ez dugu seigarren bokalaren [y] adibiderik jaso.

Bokal bilkurak

II. Bokalak bokalen ondoan daudenean ere idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduetan: *etxea etxea, geroago geroa*go, *mendia mendia, burua burua*.

Gainera aintzat hartu behar da:

¹⁰ Interesgarria litzateke azterketa akustiko batekin osatzea, baina lan honen helburuetatik urruntzen da, beraz, ez dugu egingo oraingo honetan.

II.a. <ea, oa> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola: *etxia*, *etxie*; *gerua*go, *telefonua* eta *kidekoak*).

II.b. <ia, ua> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola, zerbait tartekatuz: *mendiya*, *mendixa*, *mendiza*; *buruba* eta *kidekoak* edo, bigarren bokala aldatuz edo kenduz: *mendie*, *mendi*; *burue*, *buru* eta *kidekoak*).

< ea >

(f) *egot[ea]*; *etx[ea]n*; *trist[ea]*; *hispid[ea]*; *ast[ea]n*; *best[ea]k*; *atz[ea]n*; *art[ea]n*; *atal[ea]n*; *bak[ea]*. Kontrakorik ez.

(if) *best[ea]*; *atz[ea]n*; *bakoitz[ea]*; *hest[ea]*; *logur[ea]*; *seri[ea]k*; *asmatz[ea]*; *azken[ea]n*; *zaren[ea]n*. Kontrakorik ez.

< oa >

(f) *tristeetak[oa]*; *protagonism[oa]*; *buruzk[oa]*; *arrar[oa]*; *opar[oa]*; *egunerok[oa]*; *historik[oa]k*; *sai[oa]n*; *gog[oa]ngarrienak*; *gaurk[oa]n*; *sekzi[oa]n*; *zorizk[oa]z*. Kontrakorik ez.

(if) *antzek[oa]*; *kapitul[oa]k*; *horrelak[oa]k*; *d[oa]*; *n[oa]*; *kriteri[oa]*. Kontrakorik ez.

< ia >

(f) *ag[ia]n*; *independentz[ia]*; *med[ia]r*; *olerk[ia]k*; *aurpeg[ia]k*; *metra[ja]*; *nagus[ia]k*; *izugarr[ia]z*; *ugar[ia]k*. Kontrakorik ez.

(if) *albaitar[ia]renera*; *beg[ia]*; *zaur[ia]k*; *muk[ia]k*; *guzt[ia]k*; *fantas[ia]zko*; *eg[ia]*. Kontrakorik ez.

< ua >

(f) *ingur[ua]n*; *libur[ua]k*; *garrantzits[ua]z*. Kontrakorik ez.

(if) *kas[ua]n*; *kat[ua]*; *mund[ua]n*. Kontrakorik ez.

Hiztunak <ea, oa, ia, ua> fonemak aldakortasunik gabe ahoskatu ditu erreistro formalean eta informalean. Ahoskera zainduak hobesten dituen formak erabili ditu. Ez da *etx[ia]* edo *horrelak[ua]*, *mend[ia]*, edo *bur[ue]* bezalako formarik

jaso. Euskara batudun hiztuna izanik, ulertzekoa da bokal bilkura hauek ahoskera zainduan hobesten den bezala egitea.

III.1. Bokal bi elkarren segidan daudenean, lehenengoa <i> edo <u> bada, bokal bilkura bi silabatan ahoskatuko da (hala nola: **abi.an**, **sozi.ala**, **zi.ur**). Dena den, badira hitz batzuetan **ui** diptongoak.

(f) *eg[we]rdi; istor[io]ak; independentz[ia]; Frantz[ia]r; hor[i.e]k; duz[u.e]; ag[i.a]n; libur[u.a]k; punt[u.a]len; gertakar[i.e]n; olerk[i.ak]; hor[i.e]n; aurpeg[i.a]k; nagus[i.a]k; distop[i.e]n; garrantzits[u.a]z; nagus[i.e]nak; izugarr[i.a]z; eleberr[i.a]z; lubak[i.e]tan.*

(if) *albaitar[ia]renera; kas[u.a]n; kat[u.a]; beg[i.a]; zaizk[i.o]; zaur[i.a]k; d[i.o]zu; guzt[i.a]k; fantas[i.a]zko; z[u.e]na; eg[i.a]; n[u.e]n.*

Hiztunak ez ditu beti berdin banatu silabak (*eg[we]rdi* baina *hor[i.e]n*). Diptongatzeak gertatu dira bi erregistroetan. Silaba banaketa EBAZen hobetsi bezala egin da oro har. Salbuespen gutxi batzuk aurki ditzakegu (hizketa formalean informalean baino gehiago), baina ez dira asko izan.

III.2. Bokal bilkura hauek silaba bakarrean (diptongoan) ahoskatzen dituzten Ekialde eta Iparraldeko euskalkietako hiztunengan hizkera zaindutat hartuko da ahoskera hori.

Hiztuna da ez eremu horietakoa, eta espero bezala, ez du goranzko diptongo askorik erabili.

IV. Bokal biren artean <h> idazten denean, <h> ahoskatzen ez den euskalkietako hiztunek ere bokal bakoitza silaba batean ahoskatzera joko dute hizkera maila zainduan (hala nola: **za.harra**; **na.hi** du; **bi.hurturik**; **a.hula**; **be.hi**).

(f) *n[aj]z; “nahiz”¹¹; l[e.e]nengo.*

(if) *b[e.a]r; n[aj]ko.*

¹¹ Idatzizko grafiarekin ere eman da adibide hau, *izan* aditzaren lehenengo pertsona singularretik ezberdintzeko.

Aurrez aztertutako araeuan bezala, honetan ere bi erregistroetan ez da ezberdintasunik nabaritu. EBAZEn hobetsitako silaba banaketa aurki daiteke baina baita diptongatzeak ere bi hizketa estiloetan. *Lehenengo* bezalako hitzetan *le.enengo* egiten du hiztunak, beraz, ahoskera zainduan hiatoa egiten du hiztunak oro har <h>rekin idazten diren hitzetan, ahoskera zainduak hobetsi bezala.

Kontsonanteak

V. Idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduan

<b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, tz, z>

Beraz:

1. <g> <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*). Azken orduko maileguetan, salbuespenak banan-bana markatuko dira. Esaterako, dagoeneko onartua dugun *gin* (edaria).

<g><e> eta <i> aurrean

(f) *azpi[ge]nero*; Kontrakorik ez.

(if) Ez da adibiderik aurkitu.

Erregistro formalean [g] ahoskera darabil hiztunak (adibide bakarra aurkitu da), ahoskera zainduan hobesten dena betez. Hizketaldi formaleko *azpi[g]enero* adibideak ahoskera zainduko araua betetzen du.

2. <s> <z> eta <ts> <tz> Hizkera zainduenatarako pare hauek bereiztea hobetsiko da. Bestalde <z> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) zistukaria da eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gazteleraizko *zapato* hitzaren lehen kontsonantea, alegia). Beraz, *eskizofrenia* hitzaren lehen eta hirugarren kontsonanteak zistukariak dira (bata apikaria eta bestea bizkarkaria); halaber *soziologia* hitzaren lehena eta bigarrena.

< s >

(f) *iku[s]ita; e[s]pero; tri[s]tea; a[s]matu; pi[s]ta; a[s]te; [s]aioa.*

(if) *[s]er; be[s]teak; ka[s]uan; [s]ortzen; iku[s]ten; [s]artzen; e[s]tacit.*

< z >

(f) *e[ɣ]; i[ɣ]ango; [ɣ]aigu; i[ɣ]pidea; geni[ɣ]ki[ɣ]uen; dit[ɣ]ue; buru[ɣ]koa; nai[ɣ]; a[ɣ]pigenero; gata[ɣ]ka; kontaki[ɣ]un; [ɣ]auritu; ekoi[ɣ]tutako; e[ɣ]augarriak; [ɣ]aigu; [ɣ]uen; buru[ɣ]; i[ɣ]ugarria[ɣ]; [ɣ]ekzioa.*

(if) *[ɣ]er; de[ɣ]akegu; [ɣ]ure; e[ɣ]er; e[ɣ]; dauka[ɣ]u; muki[ɣ]; [ɣ]itzaguna; bi[ɣ]i; [ɣ]eukan; a[ɣ]kenean; adibide[ɣ].*

< ts >

(f) *arra[tʃ]alde; indar[tʃ]u; sun[tʃ]iketa.*

(if) *pol[tʃ]ikotik.*

< tz >

(f) *en[tʃ]uleok; toka[tʃ]en; ani[tʃ]; testigan[tʃ]a; la[tʃ]ari; aurkikun[tʃ]a; sar[tʃ]eko, garran[tʃ]itsua.*

(if) *bila[tʃ]en; an[tʃ]ekoa; dei[tʃ]en; usain[tʃ]en; sor[tʃ]en; ba[tʃ]uk; mugi[tʃ]en; hauta[tʃ]ea; har[tʃ]en.*

Maileguetako < z >

(f) *rui[θ]; mer[θ]e.*

(if) *[θ]riler.*

Txistukariei dagokienean, EBAZ arauak bete dira erregistro formalean, oro har. Igurzkarietan, lepokari eta apikari arteko aldea nabarmendu beharko genuke, fonemen artikulazioan alde handia markatzen baitu hiztunak bi fonemen artean. Aipatzekoa da *[ɣ]ekzioa* eta *garran[tʃ]itsua* hitzetan, erregistro formalean egindakoak, asimilazio bat nabari dela, hitzaren ondorengo txistukariak eragindakoa. Afrikatuei dagokienean, adibide gutxi aurkitu baditugu ere laginean, apikari asko palatal egiten ditu hiztunak, *arra[tʃ]alde; indar[tʃ]u* edo *pol[tʃ]ikotik* bezalakoetan, formal eta informalean. Baina bada *sun[tʃ]iketa* hitza, non hiztunak ongi ezberdintzen duen apikaria. Lepokariak, berriz, ondo ezberdintzen ditu apikarietatik eta palataletatik (*en[tʃ]uleok, testigan[tʃ]a, dei[tʃ]en* edo *sor[tʃ]en* hitzetan, esaterako). Maileguetako <z>k gaztelaniazko

ahoskera hortzartekoaz [θ] egin ditu erregistro formalean eta informalean, ez ditu fonemok ziztukaritzen.

3. <b, d, g, r> bokalar-tean gertatzen direnean, hurrenkera honetan handiagotzen den oparotasunaz desager edo alda daitezke hizketa arduragabeen (hala nola: *ari naiz* ai naiz, *horiek* (h)oi-ek, *egon* eon, *edan* ean, eran, etab.). Aho-skera horiek erabat egoki eta bidezko dira gainerako hizkera mailetan, baina hizkera zainduan bokalar-teko kontsonanteak aho-skatu egin behar dira.

< b, d, g, r >

(f) *prota*[y]onismo; *e*[y]une[r]okoa; *a*[r]ituko; *bu*[r]u; *be*[r]e; *e*[r]e; *lite*[r]aturari; *da*[ð]en; *ditu*[y]u; *ho*[r]ien; *gertua*[y]oko; *na*[y]usiena; *bitxike*[r]i; *pasa*[ð]en; *li*[β]u[r]uak; *ele*[β]erri.

(if) [oi-ek]; [ze]; [itfojn]; [bitu]; [βeβaj]x2; *ditzake*[y]u; *ate*[r]ata; *dezake*[y]ula; *asmo*[r]ik; *ge*[r]o; *ho*[r]i; *manchesterre*[r]a; *di*[r]a; *bate*[r]e; *li*[β]uruak.

Hizketaldi formalean aho-skera zainduan hobetsitako formak erabiltzen ditu hiztunak, <b, d, g, r> bokalar-tean agertzen diren bilkuretan. Espero bezala egiten ditu. Hizkera informalean, berriz, kontsonanteen kentzeak aurki ditzakegu *hoiek* edo *ze* bezalako formetan. Gainera, [itfojn], [bitu] edo [βeβaj] ere agertzen zaizkigu erregistro informalean, eta ez [itfaron], [beyiratu] eta [ere βaj]. Kontsonate galera dago. Erregistro informalean, beraz, lenitioak gertatu dira sei aldiz behintzat.

4. <r, rr> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko aho-skera ubularra (frantsesezko *rue* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

< r, rr >

(f) *a*[r]atsaldeon; *t*[r]isteetakoa; *lite*[r]atu[r]a; *p*[r]otagonista; *ob*[r]a; *latza*[r]i; *he*[r]iotza.

(if) *za*[r]a; *ho*[r]i; *zu*[r]e; *lauga*[r]en; *denbo*[r]aldia; *beha*[r]; *ha*[r]tzen.

Dardarkariak EBAZ arauetan hobetsi bezala egin ditu hiztunak. Kontsonante kentzeak ttak-etan gertatu dira gehienbat.

VI. <h> Letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hiztunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra hoskabea den Hegoaldeko euskalkietako hiztunen ahoskera zainduan ere <h> ez da ahoskatuko. Letra horren mututasunaren salbuespen bakarra Hegoaldekoen ahoskeran *zihoan*, *zihoazen* bezalakoetan gertatzen da, hor <h> [x] belarraz ahoskatzen delarik (gaztelaniazko *jamón* hitzaren lehen kontsonanteaz, alegia).

<h>az esanak berdin balio du <ph, th, kh> ahoskeretarako: erabat egoki da ebakera hasperenduna halakoa duten Iparraldeko euskalkietako hiztunengan (hala nola *eperra* epherra eta kidekoak).

Hiztuna hegoaldekoa izanik, < h >ak ez ditu ahoskatzen. *Zihoan* bezalakorik ez da jaso.

VII. <il, in> letra bilkura hauek <(i)ll> eta <(i)ñ> (hala nola: *mila milla* edo *mailua* mallua, *bina biña* edo *baino baño*) ahoskatzen diren euskalkietako hiztunengan bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da (ahoskera zaindua <ll> —*milla*— da eta ez <y> — *miya*—). Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hiztunengan, noski, bustidurarik gabea izango da ahoskera zaindua ere (hala nola: *mila mila* edo *mailua* mailua, *bina bina* edo *baino baino*).

< il >

(f) *za[ya]*; *bata[ya]*.

(if) *bi[ya]tzen*; *bi[ya]tu*; *pi[ya]*; *hi[ʎa]*.

< in >

(f) *gai[n]*. Ez da adibide gehiagorik aurkitu.

(if) *ba[jn]o*; *ga[jn]era*; *doa[jn]ik*; *ba[n]a*; *zi[n]en*; *doa[in]ik*; *desberd[in]a*.

<il> edo <in> bezalako kontsonante bilkuretan ordezkatzek egin ditu hiztunak bi hizketa estiloetan, bustidurak eginez. Bi erregistroetan aurkitu ditugu bustidurak, eta egokitzen hartzen dira ahoskera zainduan, forma hori duten euskalkietan. Hala ere, aipatzekoa da bustidura hori espero zen [ʎ]ren ordezkari [y] egin duela oro har (*za[ja]* edo *bi[ya]tu* bezalakoetan, adibidez). Gaztelania-euskara elebidunen artean gero eta gehiago dira [ʎ] fonema ez daukatenak beren

fonema inbentarioan (Oñederra & Jauregi & Epelde, 2014). Autore hauek desalbokaritze bilakabide baten aurrean gaudela aipatzen dute, eta geografikoki hedatuz doan aldaketa gisa aurkezten dute. Honekin batera adin edo elebitasunarekin badu zerikusirik. Oñederrak, Jauregik eta Epeldek (2014) azaltzen dutenez, markatuena (artikulatorioki konplexuena) albokaria izanik, ulertzekoa da hizkuntzak bat galtzekotan horixe galtzea, eta euskaran gertatzen ari da.

VIII. <j> letraren euskarazko ahoskera oinarrizkoa <y> da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera oro har. Halaz ere eta beraz:

<j>

(f) [x]orratuko; [y]ardungo.

(if) [x]atorrena; [x]usto; [x]uten; [x]artzen; [x]an; [x]arraituko.

Hiztunak ahoskatutako <j> guztiak [x] ahoskeraz egin ditu hizketaldi formaleko bat izan ezik ([y]ardungo). Orokorrean, ez du ahoskera zainduan hobetsitako forma erabili, baina erakusgarri izan daiteke bete den bakarra hizketaldi formalean egin izana, ahoskera arduratsua egiterakoan, ahoskeran arreta jartzerakoan, hain zuzen ere. Kontuan hartzekoa da hiztunek arau hau barnerratzeko izan dezaketen zailtasuna, gaztelaniazko <j>k asko baldintzatzen baitu hiztunaren pertzepzioa.

IX.1. <x> Ahoskera sabaikaria du lehengo euskal hitzetan: *xagu*, *xoxo*, *Xabier*.

<x>

Maileguetan

(f) *Ale[k_s]ievich*

(if) *Netfli[k_s]*

Maileguetan, EBAZen hobetsitako formak egiten ditu hiztunak. Ez da kontrakorik agertu hizketaldi batean ere.

Kontsonante bilkurak

X. <zb, zd, zg> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren ondorengo <d> kontsonantea (aditz formen hasieran agertuko dena) ahoskabe ebaki behar da (hala nola *ez da: ezta*). *Ez* adberbioaren ondorengo <b, g> kontsonanteak ere ahoskabe ebakitzea hobesten da (hala nola: *ez gara: ezkara; ez bada: ezpada*). Hortik kanpo ere <z> eta <b, d, g> ahoskeran biltzen diren guztietan ahoskabetzea onargarria da hizkera maila zainduan ere.

< zb >

Ez da horrelakorik aurkitu.

< zd >

(f) *e[ʂd]akit*, “*ez dakit*”; *e[ʂd]uʂue*, “*ez duzue*”; *e[ʂd]a*, “*ez da*”.

(if) *e[ʂd]izut*, “*ez dizut*”; *e[ʂd]ayo*, “*ez dago*”; *e[ʂd]akizu*, “*ez dakizu*”;
e[ʂt]akit, “*ez dakit*”.

< zg >

(if) *e[ʂg]inen*, “*ez ginen*”.

XI. <zz> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren azkeneko <z> kontsonantea eta ondorengo <z> (aditz formen hasieran agertuko dena) batera ebaki behar dira afrikatua osatuz (hala nola: *ez zara: etzara; ez zetozele: etzetozele; ez zenion: etzenion; ez zuen: etzuen*).

<zz>

(if) *e[ʂʂ]aikit*, “*ez zaizkit*”.

X eta XI arauetan oro har ez da ahoskera zainduan hobetsitako kontsonante bilkuren ahoskera aurkitu. Bi erregistroetan <zd> edo <zg> bezalako formetan ez da *eztitut* edo *ezkara* bezalako formarik aurkitu. Edonola ere, salbuespen bakarra aurkitu dugu eta hizketaldi informalean agertu da, behin, *e[ʂt]akit* hitzean fortitioa gertatu baita.

XII. <nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> Letra bilkura horietako zistukaria (<z, s>) afrikatu (<tz, ts>) egin ohi da euskaraz (hala nola unibertitate, Frantzia, faltsua). Hitz mugan ere ordezkatzeko hori egiten den euskaretan afrikatzea onartzen da ahoskera zainduan (hala nola *esan zuen*: *esantzuen*; *eman zion*: *emantzion*).

< nz, lz, rz > eta < ns, ls, rs >

(f) *tokatze[nʂ]aigu*, “*tokatzen zaigu*”; *egi[nʂ]uen*, “*egin zuen*”; *Fran[tʂ]ia*.

(if) *iza[nʂ]en*, “*izan zen*”; *joate[nʂ]arenean*, “*joaten zarenean*”; *egi[ntʂ]uena*, “*egin zuena*”; *pol[tʃ]ikotik*.

Aurreko arauan azaldu bezala gertatu da honetan ere. Hitz bilkuretan (*tokatzenzaigu*, *eginzuen*, *izanzen* bezalakoetan) oro har ez da bete EBAZ arauak hobetsitakoa. Salbuespen bat aurkitu dugu *egi[ntʂ]uena* hitzean, erreistro informalean, ahoskera zainduak hobetsitakoa betez. Honetaz gain, aipatu beharra dago hitz barruko kontsonante bilkuretan ahoskera zainduko arauak betetzen direla. *Fran[tʂ]ia* edo *pol[tʃ]ikotik* bezalako hitzetan ozenen ondorengo frikaria afrikatu egiten da, eta ez da *Fran[ʂ]ia* edo *pol[ʂ]iko* bezalakorik agertzen. Fortitioak aurkitzen ditugu, beraz, bi erreistroetan.

XIII. <zn, zl, zh> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz formak agertzen direnean, euskara batzuetan <z> ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutat hartuko da horrelakoetan <z> ahoskatzea eta baita ez ahoskatzea ere (alegia, *ez naiz*: *e^znaiz* edo *eⁿnaiz*; *ez luke*: *e^zluke* edo *e^luke*; *ez haiz*: *e^zaiz* edo *e^haiz*).

< zn, zl, zh >

(if) *e[ʂn]ayo*, “*ez nago*”; *e[n]au*, “*ez nau*”.

Arau honetan ere ez da kontsonante kentzerik eman, bata bestearen atzean ahoskatu ditu hiztunak inongo ordezkatzetik egin gabe, salbuespen batean izan ezik: “*Ez nau*” *e[n]au* egin du hiztunak, [ʂ] kontsonantea galduz.

6.3. Ondorioak

Datuen aurkezpenerako arauen banaketa jarraitu ondoren, aldagarritasuna ikus dezakegu, bilakabide antzekoak aurkitu ditugulako formalean eta informalean. Fortitioak (*estakit, poltsiko*) eta lenitioak (*enau, hoiek*) aldakorak dira, oro har, arau bakoitzean. Hizkera irakurrian hainbat fortitio gertatu dira (*Fran[tʃ]ia*), baita lagun artekoan ere (*egi[ntʃ]uena, e[st]akit*). Eta espero genezakeen moduan, lenitioak gertatu direnean informalean gertatu dira gehienbat. Gauzak honela, arauak betetzen ez dituzten salbuespenak zein hizketalditan agertzen diren azpimarratzea garrantzitsua da, horietan ikus baitaiteke ezberdintasun apurra (<j>n [x] fonema gailentzen den arren, hizketaldi formalean aurki dezakegu [j] salbuespena, esaterako). Aipatu bezala, lenitioak gehienbat informalean gertatu dira, kontsonante galtzeetan batez ere (*hoiek, enau, bitu*).

Oro har esan dezakegu EBAZ arauak bete direla bi erregistroetan, eta ez dela aldakortasun handirik ikusi formalaren eta informalaren artean. Hitzuna gasteiztarra izanik, eta euskara batuduna, halaxe espero genezakeen, hiztunak ez baitu euskalkidun batek besteko forma aniztasunik, erregistro ezberdinetan txandakatu ahal izateko. Hizketaldi informalean formalean baino lenitio gehiago gertatu diren arren (espero genezakeen bezala), ezberdintasuna ez da oso nabaria. Bilakabide antzekoak aurkitu ditugu bi erregistroetan, ahoskera antzekoa da bilakabideei begiratuz gero. Aurrez aipatu bezala, euskara batudun hiztunek forma aniztasun mugatuagoa izateak izan dezake eragina.

7. ONDORIO NAGUSIAK

Ondorioak plazaratzen hasi aurretik, azpimarratu beharko genuke EBAZ arauen malgutasuna. Ezin espero dugu arauok proposatu bezala erabat betetzea erregistro formalean eta ez betetzea, berriz, informalean. Ñabardura ugari izan ditzakete, eta hiztunaren ahoskera baldintzatu dezaketen (modua, tenorea, aurreiritziak...) beste hainbat faktore ere egon daitezke. Beraz, ezin ditugu modu estanko batean ulertu arauok.

Gauzak horrela, hitzuna euskara batuduna izateak arauen betetze maila altua izango dela pentsatzera eraman gaitu hasiera batean, eta datuek hala berretsi dute. Gasteizen euskara batua izanik erregistro aniztetan darabilgun hizkera, eta euskalkidun hiztunek izan ditzaketen formak ez edukitzeak arauak gehiago betetzera darama hitzuna, hizketaldi

arduragabeen bada ere. Euskalkidun hiztun batek erregistro formalean eta informalean egiten dituen formen azterketa batekin alderatzea interesgarri litzake, emaitzak ezagutu aldera.

Hizkera estiloak sailkatzerakoan ere, aipatu dugu herri irratigintza “hizkera profesionaletik” urruntzen dela, eta irrati profesionaletan eskatzen den ahoskera zaindura loturik ez dagoela esataria. Herri irratigintzan esatariak darabilen hizkera lagun artekoa baino arduratsua bada ere, espero genuena baino alde txikiagoa dago bi hizkeretan. Fortitio bilkakabideak bi erregistroetan kopuru antzekoetan agertu diren arren, lenitioak nabarmenago gertatu dira erregistro informalean, espero genuen moduan (*hoiek, enau, bitu*). Kontsonanteen kentzeak izan dira, batez ere, hizketaldi informalean nabarmenago gertatu diren lenitioak. Hizkera arduragabeagoan hainbat ttak desagertu egin dira, eta herskari ahoskabeak indar gutxiagorekin agertu dira. Bilakabideen eremuan azpimarragarri da, beraz, erregistroetan alde handirik ez badago ere, badirela hainbat adibide aurrez espero genuena betetzen dela ondorioztatzeko.

Gogoeta batera ere bagaramatza honek. Izan ere, gasteizko euskaldun berriak, bertan jaio eta hazitakoak oso “gazteak” dira. Tarte laburra egon da hizkeraren garapenerako. Egia da baita ere oro har euskaraz jarduten duten (behintzat hala jarduteko erantzukizuna duten) hainbat euskal egoitza ofizial Gasteizen daudela egun, Eusko Jaurilaritza edo Euskal Herriko Unibertsitateko kanpusa, esaterako. Honek Gasteizko euskaldun kopurua igo du seguruenik, nahiz eta urte gutxiegia pasa diren hizkuntzaren historian aldaketak gertatzeko. Lan honetako subjektua bereziki “gaztea” den arren, pentsa daiteke oraindik ez dela hizkuntzan aldaketarik gertatzeko denbora nahikorik pasatu. Erregistroetan aldaketa nabarmenak ez agertzea, beraz, honek eragindakoa izan daiteke.

Hala ere, aipatu dugun bezala, gasteiztar hiztunek ez dute talde homoginoa osatzen, eta lan honetan plazaratutako ondorioak ezin dira orokortu; ziurrenik, emaitza alda daitekeelako hiztunaren ezaugarrien arabera.

Ondorio argirik atera ezin badezakegu ere, lan honen helburua eremu honetan EBAZ arauekin gertatzen dena deskribatzea izan da, ondorengo azterketa batzuetan baliagarria izan daitekeen informazioa plazaratzeko asmoarekin. Ondorio argiago eta aberasgarriagoetara iritsi ahal izateko lan honetan murrizta izan den eta etxeko

baliabideekin egin behar izan den lagina zabaldu beharko litzateke. Oraingoan, behintzat, deskribapen hau urrats txiki bat bezala aurkeztuko dugu.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Camino, Iñaki. 2015. Ahoskera hiztun eta eskualderik eskualde. *Euskera* 60-2, 409-450.

Delgado, Maria Raquel & Freitas, Maria Joao. 1991. "Temporal structures of speech: Reading news on TV", *ESCA Workshop on Phonetic and Phonology of Speaking Styles*. Barcelona: ISCA Archive.

Donegan, Patricia. 1985. How learnable is phonology? In W.U. Dressler / L. Tonelli (eds.). *Papers on Natural Phonology from Eisenstadt*. Padova: CLESP, 19-31.

Donegan, Patricia & Nathan, Geoffrey. 2015. Natural phonology and sound change. In Honeybone, P. / Salmons, J. (eds.). *The Oxford Handbook of Historical Phonology*. Oxford University Press, 429-449.

Euskaltzaindia. 1998. Euskaltzaindiaren arauak. *Euskera* 43-2, 485-490.

Gregory, Michael & Carroll, Susanne. 1978. *Language and situation: Language varieties and their social contexts*. London, Henley and Boston: Routledge & Kegan Paul.

Gutierrez Paz, Arantza. 2002. *Euskal irratigintzaren historia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Jakobson, R. 1968. *Child Language, Aphasia, and Phonological Universals*. The Hague: Mouton.

Llisterri, Joaquim. 1992. "Speaking styles in speech research", *ELSNET/ESCA/SALT Workshop on Integrating Speech and Natural Language*. Dublin, Ireland.

Moreno Cabrera, Juan Carlos. 2010. *Euskararen ikaskuntzarekiko aurreiritziak. III*. Euskal soziolinguistika jardunaldia. (Esteka honetatik hartua: <http://www.soziolinguistika.eus/files/05%20JC%20Moreno.pdf>)

Oñederra, Miren Lourdes. 2004. *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Oñederra, Miren Lourdes & Elordui, Agurtzane & Epelde, Irantzu & Etxeberria, Pilartxo & Jauregi, Oroitz & Salaberria, Jasone. 2015. Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du). *Euskera* 60-2, 499-531.

Oñederra, Miren Lourdes & Jauregi, Oroitz & Epelde, Irantzu. 2014. Hitzunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania. *Lapurdum XVIII*, 75-95.

10. ERANSKINAK

10.1. Lehenengo eranskina: EBAZ arauak¹²:

Bokalak

I. <a, e, i, o, u> Idatzi bezala ahoskatu: [a, e, i, o, u]; sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>ren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [y]) hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan.

Bokal bilkurak

II. Bokalak bokalen ondoan daudenean ere idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduetan: *etxea etxea*, *geroago geroa*go, *mendia mendia*, *burua burua*.

Gainera aintzat hartu behar da:

II.a. <ea, oa> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola: *etxia*, *etxie*; *gerua*go, *telefonua* eta *kidekoak*).

II.b. <ia, ua> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola, zerbait tartekatuz: *mendiya*, *mendixa*, *mendiza*; *buruba* eta *kidekoak* edo, bigarren bokala aldatuz edo kenduz: *mendie*, *mendi*; *burue*, *buru* eta *kidekoak*).

III.1. Bokal bi elkarren segidan daudenean, lehenengoa <i> edo <u> bada, bokal bilkura bi silabatan ahoskatuko da (hala nola: *abi.an*, *sozi.ala*, *zi.ur*). Dena den, badira hitz batzuetan **ui** diptongoak.

¹² Formaltasun mailari egokitzeko gaitasuna guztion esku egon dadin, arauok ulerterrazak izan daitezten honako irizpideak erabiltzen ditu Euskaltzaindiak:

0. Adibideetan hitzen forma ortografikoa letra etzanean agertzen dena da: *jateko* yateko. Bigarren formak ahoskera adierazten du. Batuaren ortografian ez dauden ikur batzuk erabili behar izan dira ahoskera islatzeko: <ç>: sabaiaurreko ahostuna (Lekeitioko *ogiçã* azken kontsonante hori); <y> : <j> letraren ahoskera sabaikaria adierazteko gardentasunaren izenean eta askotan egiten den <j> -[x] belarrarekiko loturaren haustea grafikoki nabarmentzeko; [x] igurzkarri belarra da (gazt. *jamón* hitzaren lehen kontsonantea).
1. Arauaren zenbaki erromatarren ondoan zenbaki arabiarak ematen dira, ulerterraztasunagatik araua zatitu denean (esate baterako, III. eta III.a)
2. Erabilera zaindurako arauekin batera, gainerako mailetarako proposamenak ere ematen ditu Euskaltzaindiak.
3. Arauaren zenbakiari letrak gehitu zaizkio araua zatitu denean (II. a eta II. b).

III.2. Bokal bilkura hauek silaba bakarrean (diptongoan) ahoskatzen dituzten Ekialde eta Iparraldeko euskalkietako hitzunen ahoskera zainduz hartuko da ahoskera hori.

IV. Bokal biren artean <h> idazten denean, <h> ahoskatzen ez den euskalkietako hitzunek ere bokal bakoitza silaba batean ahoskatzera joko dute hizkera maila zainduan (hala nola: **za.harra**; **na.hi** du; **bi.hurturik**; **a.hula**; **be.hi**).

Kontsonanteak

V. Idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduan

<**b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, tz, z**>

Beraz:

1. <**g**> <**e**> eta <**i**> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia*). Azken orduko mailegutan, salbuespenak banan-bana markatuko dira. Esaterako, dagoeneko onartua dugun *gin* (edaria).

2. <**s**, **z**> eta <**ts**, **tz**> Hizkera zainduen etarako pare hauek bereiztea hobetsiko da. Bestalde <**z**> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) zistukaria da eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelera *zapato* hitzaren lehen kontsonantea, alegia). Beraz, *eskizofrenia* hitzaren lehen eta hirugarren kontsonanteak zistukariak dira (bata apikaria eta bestea bizkarkaria); halaber *soziologia* hitzaren lehena eta bigarrena.

3. <**b, d, g, r**> bokal artean gertatzen direnean, hurrenkera honetan handiagotzen den oparotasunaz desager edo alda daitezke hizketa arduragabeen (hala nola: *ari naiz* ai naiz, *horiek* (h)oiiek, *egon* eon, *edan* ean, eran, etab.). Ahoskera horiek erabat egoki eta bidezko dira gainerako hizkera mailetan, baina hizkera zainduan bokal arteko kontsonanteak ahoskatu egin behar dira.

4. <**r, rr**> euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra (frantsesezko *rue* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

VI. <**h**> Letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hitzunek idatzi bezala ahoskatuko dute hizkera zainduan. Letra hosiakabea den Hegoaldeko euskalkietako hitzunen ahoskera zainduan ere <h> ez da ahoskatuko. Letra horren mututasunaren salbuespen bakarra Hegoaldekoen ahoskeran *zihoan*, *zihoazen* bezalakoetan gertatzen da, hor <h> [x] belarraz ahoskatzen delarik (gaztelaniazko *jamón* hitzaren lehen kontsonanteaz, alegia).

<h>az esanak berdin balio du <ph, th, kh> ahoskeretarako: erabat egoki da ebakera hasperenduna halakoa duten Iparraldeko euskalkietako hiztunengan (hala nola *eperra* epherra eta kidekoak).

VII. <il, in> letra bilkura hauek <(i)ll> eta <(i)ñ> (hala nola: *mila milla* edo *mailua* mallua, *bina*

biña edo *baino baño*) ahoskatzen diren euskalkietako hiztunengan bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da (ahoskera zaindua <ll> —milla— da eta ez <y> —miya—). Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hiztunengan, noski, bustidurarik gabea izango da ahoskera zaindua ere (hala nola: *mila mila* edo *mailua mailua*, *bina bina* edo *baino baino*).

VIII. <j> letraren euskarazko ahoskera oinarritzkoa <y> da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera oro har. Halaz ere eta beraz:

VIII.1. <j> hitz hasieran <y> ahoskatuko da (hala nola *jateko yateko*, *jokalariak* yokalariak).

Badira [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak. Hitz horietako batzuk hizkera maila zainduetan gertakortasun urrikoak dira, beste batzuk (*Heg.* marka daramatenak) Hegoaldean erabiltzen dira (hala nola *jertse*, *jipoi*, *jira*).

VIII.2. <j> hitz barruan gertatzen denean, <y> izango litzateke ahoskera zainduena. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, Hegoaldeko [x] belarra (gzt. *jamón*) eta Iparraldeko <ç> sabaiaurrekoa ere (fr. *jambon*) onartzen dira hizkera zainduan *garaje*, *ijito* bezalako hitzetan.

IX.1. <x> Ahoskera sabaikaria du lehengo euskal hitzetan: *xagu*, *xoxo*, *Xabier*.

IX.2. <x> Maileguetan bokalartekoa <ks> ahoskatzea hobesten da hizkera zainduan (hala nola: *sexua* seksua, *taxian* taksian, *faxe*z faksez). Hitz amaieran oso gutxitan agertzen da eta hitz bereziak dira. Horietan ere [ks] ahoskera egin daiteke.

Kontsonante bilkurak

X. <zb, zd, zg> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren ondorengo <d> kontsonantea (aditz formen hasieran agertuko dena) ahoskabe ebaki behar da (hala nola *ez da: ezta*). *Ez* adberbioaren ondorengo <b, g> kontsonanteak ere ahoskabe ebakitzea hobesten da (hala nola: *ez gara: ez*zara; *ez bada: ez*pada). Hortik kanpo ere <z> eta <b, d, g> ahoskeran biltzen diren guztietan ahoskabetzea onargarria da hizkera maila zainduan ere.

XI. <zz> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren azkeneko <z> kontsonantea eta ondorengo <z> (aditz formen hasieran agertuko dena) batera ebaki behar dira afrikatua

osatuz (hala nola: *ez zara: etzara; ez zetozela: etzetozela; ez zenion: etzenion; ez zuen: etzuen*).

XII. <nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> Letra bilkura horietako zistukaria (<z, s>) afrikatu (<tz, ts>) egin

ohi da euskaraz (hala nola unibertsitate, Frantzia, faltsua). Hitz mugan ere ordezkatzeko hori egiten den euskaretan afrikatzea onartzen da ahoskera zainduan (hala nola *esan zuen: esantzuen; eman zion: emantzion*).

XIII. <zn, zl, zh> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz formak agertzen direnean, euskara batzuetan <z> ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutat hartuko da horrelakoetan <z> ahoskatzea eta baita ez ahoskatzea ere (alegia, *ez naiz: eznaiz* edo *enaiz; ez luke: ezluke* edo *eluke; ez haiz: ezaiz* edo *ehaiz*).

10.2. *Bigarren eranskina*: Transkribapen fonetikoak¹³

Formala (Irrati saioa)

[aratfaldeon entsuleok] [bweno on eș ðakit ișanğođen gawrko ɣaja ikușita] [eđerki berðinduta eyotea eta etfean gofo ɣofo eyotea espero ðuyu] [ișan ere ɣawr ɣaj latș eta triștea tokatșen șajɣu] [așpigenero indartfu eta oparo βati βuruș itș eyinyo ðuyu] [tamaleș gaj onen iņguruan ajmbat eta ajmbat liβuru arɣitaratu ðira] [aj ama orajndik eș dușue azmatu eywerði aratfalde onetako ișpiðea] [beņga freſkatu βuru oriek pașaðen aștean piștawɣari eman ɣenișkișuen eta]

[beraș ementfe βota ɣenișuena] [ɣaj latșa xoratuko ðuyuna] [bake ɣarajareņ kontrako literatura xoratuko ðuyu] [garaj șail eta trișteetakoa eta ezbetlamalekșiebitf bernarðo atfaya eðo janetfenofisenek bere protayonișmoa eðukiko ðute] [așmatu ðușue ðayoeneko șeri βurușkoa ișanğo ðen aște onetako șaioa] [eșða batere șaja gera literatura ori ða] [bueno najș eta aɣian araroa iruðitșen șajșuen oșo așpiyenero oparoa ða] [eta iðașle așkok eta așkok guðari βurușko liβuruak xoratu ðituște] [eta ɣatașka anitș landu ðira] [frantșiar irawltșa ɣerak karliștak leeneņgo eta βiyaren mundu ɣerak indepenentșia ɣerak guða ðapoleondarak bjetnamgo ɣuða eðo meðiar ɣerak] [bataja puntualen eðo ɣerate lușeeņ kontakıșun anitșak aurki ðitșakeɣu literaturan] [beșteak bește ɣertakariē kontakıșunak protayonișten kajerak eta eyunerokoa eleβeri iștorikoak olerkiak eðota protayonișteneta ɣertakariē iņguruko teștiyantșa eta șajakerak] [anitșak dira βaj iștorioak bajta iștorio orien atșean dawðen awrpeɣiak ere]

[metraja șawritu șuntșiketa βomba eta tiroen artean emanğo ðuyu șajoa] [ea onik atera ɣajteșkeen] [ortaș șer landuko ðuyu ɣawrko șajoa] [ba șarera onetan gerra literaturak ekojștutako awtore eta liβuru ɣoyoanğariēnak ajpatuko ðituyu] [βajta literatura așpiyenero onen eșawɣari naɣușiak]

[atșeriko literatura atalean ișan rujθ de ɣawna etori șajɣu] [awreko ijaβetean diștopien iņguruko șajoa maryaret atbuðes itș eyin șuen] [eta ɣawrkoan ezbetlana alekșiebitf beșalako ișeņ ɣarantșitfuăș arituko ða] [eta βere oβra naɣușienak komentatuko ðișkiɣu]

¹³ Transkribapen laxoa egin da, ez estua, lan honetako azterketa egiteko nahikoa dela iritzita. Audioen kalitate hobearrekin transkribapen fidelagoa egin likete ziurrenik. Lan honetan horretan sakonduko ez dugun arren, interesgarria litzateke azterketa akustiko eta artikulatorioa egitea ere.

[oretaş gajñ eta nola eş left tol tolştojš barkatu arituko çara eşim baita çera literaturari
buruşko şajorik eyin bere çuđa eta ßakea oßra ajpatu çabe]

[literate literatura feminişta şekşioan irene neniroşki autore ukraniara eta ßere ßisitşa
latşari ßuruş arituko çara / bajta ßere talentu işuyarıaş]

[oretaş gajñ] [merþe rođoređaren la plaða ðel diamante eleßeriasş jarđunço ðuyu] [eta
yertuayoko awtore ßaten inçuruko ðatu ßatşuk emanço ðituyu]

[aşkenik] [bitfikerien atalean] [irene neniroşkiren eriotşa ßitfiasş eta ßere lanaren
aurkikuntşa şorişkoaş itş eyinço ðuyu] [alaßer left toldştojšren bitfikeri uyariak
awrkeştuko ðişkişueçu] [preşt gawrko şajoaaren lußakietan şartşeko]

Informala (lagun artekoa)

[adoş] [bajno şerari şara ßijatşen] [beştea ea koñkişaren antşekoa den] [ßale] [ßijatu
ðeşakeçu] [eta nola ðu işena ßeşteak] [bale] [kamino] [şer da ori] [ke oror eş] [ondo
đayo] [ja] [karo şure kaşuan] [a ßaj] [ta nola ðejtşen da ori] [a ßale ßale xoe] [eş dişut
ulertu] [ja] [bajno rikañ morti oretan oşea atşeşeon ikuş dişakeşu lawçaren
denboralđiko kapituloak eş] [xo eşke netfliksen eş ðayo eşer] [dawkaşu katua şure] [bai
ari ða uşajntşen] [telita polita] [eş] [ja] [eşke ßitu ðawkaşu xuşto atşean] [munduko
katurik xatorena ðaori] [baino xatorena] [eşke friða eş da munduko katurik xatorena]
[friða ða munduko katurik aşkarena] [bai] [keða] [ajen munduan eş] [bweno şe şe
eyinyo ðuyu] [aj aj aj] [xo eraman bear ðut albajtariarenera] [eşke ðayo] [ja] [bajno eşke
ðawka ßeyia mukiş beteta eta ori şe işan dajteke] [eş ðakişu] [oşea xartşen şajşkio emen
komo şawriak] [bai] [keða] [eşetş] [aßer] [beyiak ditu itfita] [ajşu] [aßer eşke şortşen
şajşkio emen komo orelako kaşkarija ßatşuk orelakoak] [ikuşten ðioşu or] [or or] [eta
ateratşen şajşkio komo mukiak en plan baða antşekoa bajno ođoleş beteta] [jođe pweş ja
falta şitşajyuna] [e friða] [şe ondo ßişi şinen eta orajn albajtariarenera] [jođe]
[albajtariarenera eramaten duđan bakojtşean doa en plan şera ßiđaj oşoa najkoondo] [e
bweno] [laşaj aşko] [şartşen gara eta ja aşten da muçitşen] [aşten da mawka] [eştakit
şer] [bwa] [ujujujuj] [onbre eşke şewkanegtea ipurđitik aterata] [ba ßaj] [ßueno]
[komponketa ßat] [utşi ori or] [utşi utşi] [bajno eş duçu ikuşiko esan duşuna] [şe ßeştela
niri loyurea şartuko şait eta ßađakişu] [amajketarako] [gutunaşalera noa] [tezla ez xan
yaşeta ojek e] [eş ðira şuretşat] [eyioşu] [.....] [şer] [bweno] [....] [ala] [ni iđa gujn
the gujldernes gajnera armekin] [bwa] [esnayo ßatere ađoş orekin e] [ja] [no te xođe]

[osea] [xuten dira aβer aβer] [xuten dira eβ đakit nora] [en plan natura đayoēn] [alaβkara
 osea juten dira alaβkara eta đa realiti βat aβer nor đen onena eđo βer] [baj] [baj] [ala]
 [βwa ke oror] [bale] [trajlera] [bale itfojn itfojn itfojn momentu βat] [aβer nik ušte ja
 kendu đeβakeyula] [ezđakit] [baj] [eβ] [baj] [ba orek eβ đit piβta aβkorik ematen e] [bale
 βale] [ađoβ] [maβter of non eβan duβu] [bale] [xo eske niri koβtatβen βait piβa βat βerieak
 awtatβea] [βe aβkēnean eđo artβen dut bat eta ikuβten dut gojtik bera] [eđo βestela]
 [koβtatβen βajt piβa βat βe aβten baldin banajβ ba ikuβiko đut aw] [eta aw βeβaj eta aw
 βeβaj eta eβđakit βer] [gero đitut eβ dakit βenbat βerie eta eβ đitut ikuβten] [ja] [bajno ori
 eβ đa đokumental βaten antβekoa] [ja] [xođer] [aj totoro] [xo eβke pelikula ori ikuβi βear
 đuyū oβo polita đa] [oβea nik] [...] [uf] [aj βe tβara iβantβen] [xoe] [bajjna yβliko
 yuβtiak ikuβi βear đituyū e] [eyin bear đuyū maratōi βat eđo orelako βerβajt xoe] [gero
 mantβeβterera juten βarenean eβ duyu eyinβo] [nik eβkaipik eβ đawkat] [xoe] [puβ βelako
 đirutβa eβ] [dej ori] [ja interneta eβ đa đoajnik] [nire poltβikotik ateratβen đa] [baj baj]
 [tarifa βat dawkat ijean orđajntβeko] [baj] baj] [fiβik jarajtuko đū eđo] [...] [oretan]
 [βweno] [piβka đezberđina] [bu] [paso] [enaw erakartβen bapeβ] [elite ta eta la kaβa đe
 papel xende yuβtiak ikuβten du bajna] [aβer eβke eβtifenβinen liβuru yuβtiak eβ dira
 onak] [ori aβteko] [eβtifenβin artβen dute iβanβo βalitiβ jokeβe] [emen] [munduko tiporik
 interezgariena eta βere] [eβ đakit] [eta βere kriterioa ajntβat artu βeareko tipo βat eta
 pueβ noβeke đeθirte] [oβea niri eβtifenβinen liβuruak ađiβiđeβ kenduta fantaβiaβko βat
 eyintβuena oβo ona] [el oxo đel đrayon] [beβte yuβtiak me pareθen una mierđa] [bajno
 βere liβuru aβko đira đe terror eta θriler] [eta βa] [eβ βaiβkit guβtatβen eyia eβan] [bueno
 βe ikuβiko đuyū] [baj] [ori] [eβ eβ ginen aβi] [eβan βeniđan eta yorđe nuen ikuβteko]
 [totoro]